

# GABA



.....

Irtetzen naiz leyora.....  
igau zoragarriya!  
mendiz mendi zetorren  
nagi, illargiya,  
ta denbora berian  
itsaso aldetik  
lañua geldi..... geldi.....  
loa banaturik..... !  
Errechiñola asi zan  
kantarisasian,  
chit illun mintzaturik  
bere jardunian:  
jnorik daki nik leyuan  
t'ark arantz tartian  
bakoitzak bere penak  
zeuzkan biyotzian..... !  
Ta «lo ..... ta lo!» kantatzen  
auzo inguruan  
amaren bat ari zan,  
aiñ triste ordian .....

non, nik esango nuken  
aurra magalian  
zeukala betiko ¡ai!

«lo» utzi nayian.....  
pensaturik emengo  
etorkizunian.....!  
T'itsas zokotik dator  
berriro lañua,  
baso, zelai, ibayen  
maindire arrua.....  
Arratsa badijua.....  
ara..... mendiz barren.....  
ollarren gab'erdiko  
kanta det entzuten.....  
Nuan..... nuan ni ere  
leyotik oyera,  
beste mundu batian  
amets egitera....!

.....

↑ ANTONIO ARZÁC.

